



OREDAINGO UDALEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILE LANPOSTUA EGONKORTZEKO EPAI MAHAIAREN BEHIN BEHINEKO BALORAZIOA

Orendainen , 2023ko maiatzaren 3an,

Bildurik,

Iñaki Eskisabel Zurututza Jauna, lehendakaria,

Izaro Gurrutxaga Auzmendi Andrea, epai mahaikidea

Jon Karrera Jauregi Jauna, epai mahaikidea

Martin Iparragirre Mujika Jauna, epai mahaikidea

Idazkaria:

Nekane Lopetedi Etxeberria, Orendaingo udaleko idazkari kontuhartzailea.

Kontutan hartuaz:

Lehena.-2022ko abenduaren 21eko Osoko Bilkuran, 2022ko enplegua publiko eskaintzea egitea onartu zen, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen arabera eta 2022ko abenduaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zen eta Estaduko Aldizkari Ofizialean, 2023ko otsailaren 22ean.

Bigarrena.- Hautaketa prozesu horretan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta bederatzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda eta Epaimahai Kalifikatzailearen osaera onartu zen eta 2023eko apirilaren 14eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zen.

Hirugarrena.-Alegazioak aurkezteko epea iragan ondoren, eta alegaziorik ez da jaso.

Laugarrena.-Epaimahaiak, administrari laguntzaile lanpostua egonkortzeko eskatzen ziren baldintzak hauek zirela:

Baldintza orokorrak: Derrigorrezko bigarren hezkuntza titulua edo baliokidea izatea eta 3.hizkuntz eskakizuna beteta izatea.

Baldintza espezifikoak:

- Administrazioan esperientzia, administrari laguntzaile lanetan 0,33 puntu hileko.



-Orendaingo udalean administrari laguntzaile lana egin izana 0,11 puntu hileko.

-Batxiller edo baliokide tituloa izatea 15 puntu

-Gidatzeko baimena izatea 5 puntu

Guzti hau kontutan hartuta, epai mahaikidekek ERABAKI DUTE:

LEHENA .-Epai mahaikideek, aurkeztutako meritua gain begiratu eta aztertu ondoren, erantsitako agirian ikusten den bezala, hautagai bakoitzari bere puntuazioa ematea.

BIGARRENA.-Epai mahaiak emandako behin behineko puntuazioa, Orendaingo udaleko web orrialdean argitara emango da eta hamar lan egunetan puntuazioa aztertzeko aukera izango da, eta dagokion erreklamazioa aurkezteko, hala bada.

HIRUGARRENA.-Denboraldi honetan alegaziorik aurkeztu ezean, behin behineko balorazioa behin betikotzat emango da eta Orendaingo alkateari, puntuazioaren arabera zerrenda ordenatuta aurkeztuko zaio.

Eta besterik ezean, bilera amaitutzat ematen da.

Lehendakariak

Idazkariak